



Bertsozale Elkartearen Berripapera

	ESPAÑA
	FRANKEO ITUNDUA
	FRANQUEO CONCERTADO
	ZK/NRO 37000126

Bertsozalea

www.bertsozale.com

2014ko ABENDUA - 159. zenbakia

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien lehen edizioa antolatu du Mintzola Fundazioak

Xenpelar Dokumentazio Zentroak bultzatuta, euskal antzerkiaren dokumentazio beharrak landu dira lehenengo edizio honetan, azaroan egin diren bi saioen bitartez.

Urteroko maitasunez egiteko asmoz sortu dira Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak, dokumentazio alorraren inguruko eta bereziki Euskal Herriko dokumentazio gaien inguruko gogoetak bultzatu eta ezagutarazteko helburuz.

Xenpelar Dokumentazio Jardunaldiak Mintzola Fundazioaren edo Bertsozale Elkartearen dokumentazio egitasmoen buruzko gaiak lantzeko erabiliko dira, hala nola, bertsolaritza eta ahozko kultur sorkuntzen dokumentazio gaiak.

Baina ez dira alor horretara mugatuko: jardunaldien gaia beti ere dokumentazioaren inguruan izango da, inguruan eta momentuan gogoeta edo kezka sortzen duten dokumentazio gai orokorren inguruan.

Ildo horretatik, azaroan egin den lehenengo edizioa Mintzola Fundazioaren Elkarguneko egitasmoaren inguruan

antolatu dute. Euskal ahozko sorkuntzek dituzten dokumentazio beharren inguruko gogoeta bultzatu eta zabaldu nahi du egitasmoak. Horregatik, aurtengoak euskal antzerkiaren dokumentazio beharrak izan ditu hizpide.

Elkarlanean antolatuta

Bi egunez egin zen Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien lehen edizioa. Azaroaren 20an, euskal antzerkiaren inguruko funtsak dituzten liburutegi eta dokumentazio profesionalen arteko jardunaldia izan zen.

Euskal Herrian zehar euskal antzerkiari buruz dauden funtsen ezaugarrien berri eman zuten. Ondorengo mahai-inguruan, gaur egun eskaintzen diren zerbitzuei buruz gogoeta egin zuten.

Astebete beranduago, azaroaren 27an, bigarren saioa egin zen Xenpelar Dokumentazio Zentroaren egoitzan,

Amasa-Villabonan. Horretan, euskal antzerkiaren inguruko sortzaile eta eragileek dokumentazio alorrean dauden beharrei buruzko gogoeta eta mahai-ingurua egin zuten. Euskal antzerki sorkuntza eta garapenean lagundu dezaketen dokumentazio beharrak plazaratzea izan zen bigarren saioaren asmo nagusia.

2014ko Xenpelar Dokumentazio Jardunaldien antolatzaileak Mintzola Fundazioa, Euskal Herriko Antzerkizale Elkartea (EHAZE), eta Koldo Mitxelena Liburutegia (KMK) izan dira, Liburutegi eta Dokumentazio Zentroetako Profesionalen Euskal Elkartearen (ALDEE) laguntzarekin.

Jardunaldietan atera diren ondorio nagusiak www.mintzola.com webgunean izango dira eskuragai.



SUSTRAI COLINA
Baiona, 2014-XI-15
Xilaba xapelketako irabazlea

Nahiz ez dakidan aski handia den zuk guri utzia biltzeko Txato zuretat doa txapela goizegi baitzen hiltzeko. Zuri ohore eta milesker bertsozale bihotzeko pribilegiatu sentitu bainaiz bertso saio bakoitzeko ez baitut txapel beharrik izan maitatua sentitzeko.



Azaroaren 20an egin zen jardunaldien lehen saioa; Donostian. //XDZ

F.C.BAIMEA: 37/126

ISSN 1138-4530

L.G. 55-614/97

Erredikzioa: Bertsozale Elkarte / Diseinua-maketazioa: Lanku / Argazkiak: Xenpelar Dokumentazio Zentrua
Tel.: (0034) 943 694129 / posta-e: komunikazio@bertsozale.com

Aurtengo lau argitalpen berri, Durangoko Azokako postuan

Urtero bezala, euskal kulturaren bilgune nagusia den Durangoko Azoka izango dira Bertsozale Elkartea eta Lanku. Aurreko urteotako argitalpenekin batera, urtean zehar argitara eman diren lau nobedade izango dira bertan. Saguanbara gunean ere, bertsolaritzarekin lotutako hainbat ekimen antolatu ditu Mintzola Fundazioak.

Hilaren 5etik 8ra egingo da aurtengo Durangoko Azoka eta bertan izango dira Bertsozale Elkartea zein Lanku. Hain zuzen ere, Goienkaleko 69an izango da Lanku eta Bertsozale Elkarteen postua.

Bertan azken urteotan bertsolaritzarekin lotuta argitaratu dugun materiala ikusteko eta erosteko aukera izango da, liburuak, CD-ak zein DVD-ak. Ohi bezala, Elkarteko bazkideek prezio merkeagoan eskura ditzakezue argitalpenok. Halaber, Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak ere erosteko aukera izango da bertan.

Horiekin batera, aurten argitara eman ditugun lau argitalpen berri ere eskuragai izango dira Durangoko Azokan.



2013ko Durangoko azokako postua.//XDZ

Mañukorta, bertsonajea. Markina-Xemeingo bertsolari ezagunari buruzko liburua idatzi du Xabier Amurizak. Bizkaiko Bertsozale Elkartek argitaratu du liburua.



Bapatean 2013. Ohi bezala, pasa den urteko bertso hautaketa zabalak bildu dute Bapatean bilduman. Horietako asko Elkartek berak grabatu ditu, baina beste asko borondatezko grabatzaileen sare zabalak bildu ditu. Horiei dago eskainia Bapatean 2013. Martin Aramendi arduratu da bertsoen hautaketaz eta transkribaketaz, Xenpelar Dokumentazio Zentroarekin elkarlanean.



Sortuz sortuz. CD bikoitza argitaratu du Bertsularien Lagunak Elkartek. Lapurdi, Baxenabarre eta Xiberoko bertso eskoletako haurrek grabatu dituzten bertso musikatuak aurki daitezke lan horretan. Oskar Estangak musikatua, Nicolas Perezek masterizatua, Aimar karrikak, Xan Alkhatek eta Odei Barrosok grabatua eta Lanku Kultur Zerbitzuak diseinatu eta argitaratua. Bertako irabaziak, Bertsularien Lagunak Elkartera joango dira, hiru herrialde horietan bertsolaritza sustatzen segitzeko.



Bertsolari Txapelketa Nagusia 2013. Udaberriean 2013ko Txapelketa Nagusiko liburua argitaratu zuen Bertsozale Elkartek. Bertan saioretako kronikak eta txapelketa osoko bertso hautatuak biltzen dira, hainbat adituren iritzia eta gogoetekin batera. Liburuarekin batera doan CDan Txapelketa Nagusiko bertso hautatuak entzun daitezke.



Irakasle bat kontratatzeko deialdia Araban

Arabako Bertsozale Elkartek irakasle bat kontratatzeko deialdia ireki du, aldi baterako baja bat ordezkatzeko.

Arabako ikastetxe eta bertso-eskoletan bertsolaritza lantzea litzateke egiteko nagusia, hau da, hezkuntza arautuan, bertso-eskoletan eta jarduera osagarrietan irakasle eta begirale lanetan jardutea, urtariletik ekainera bitartean.

Curriculumak ABENDUAREN 5a baino lehen bidali beharko dira Arabako Bertsozale Elkartera.

Informazio osoa www.bertsozale.eus/araba webgunean aurkituko duzue.

Abenduaren 20an jokatu da **#Josi Bizkaiko Bertsolari Txapelketaren finala, Bilbon**

Urriaren 12an hasi zen Galdakaon #Josi Bizkaiko Bertsolari Txapelketa. Orduetik, bost kanporaketa eta finalurreko bi jokatu dira, eta azken txanpan sartuta dago Txapelketa: finalurreko bat eta final handia besterik ez dira falta. Miribillan izango da finala, abenduaren 20an, 17:30etik aurrera.

Josi eta josi ari da Bizkaia herriz herri, saioz saio. Azken finalurrekoa bakarrik falta da Miribillan kantatuko duten zortzi finalistak zeintzuk izango diren jakiteko. Amorebieta-Etxanoko Amorebieta IV frontoian (Zelaieta zentroan) jokatu da azken finalurrekoa, abenduaren 7an, 17:30etik aurrera. Durangoko azoka dela aprobetxatuta, plan dotorea egiteko moduko eguna.

Amorebieta-Etxanon erabakiko da Miribillako zortzikotea zein izango den. Finalaren aurkezpena abenduaren 17an egingo da, Miribillan bertan.

Finalari buruzko informazioa eta sarrerak

Finalera garraio publikoan joateko gomendioa eman gura du Bizkaiko Bertsozale Elkartek. Bilboko Metroan Alde Zaharreko geltokitik hamar minutuan hel daiteke oinez Miribillara. Bilbora heltzeko autobusa eta trena ere erabil daitezke.

Finalari zein txapelketari buruzko informazio osoa nahi izanez

gero bide hauetatik lortu ahal izango duzue. Alde batetik, www.bertsozale.eus/bizkaikotxapelketa orrialdean aurkituko duzue informazioa. Bestetik, aurtengo Txapelketako berrikuntza izan den mugikorretarako aplikaziotik jaso ahal izango duzue informazioa, unekoa eta eskura: Txapelketa aplikazioa. Beste aplikazioen moduan deskargatu daiteke: "Txapelketa" bilatzailean ipini, eta deskargatu.

#Josi Bizkaiko Bertsolari Txapelketako finalerako sarrerak lortzeko bideak, hauek dira:

- www.bertsosarrerak.eu orrialdea
- Txapelketa aplikazioa
- Durangoko azokan, Bertsozale Elkartea-Lankuren postuan.
- Amorebieta-Etxanoko saioan
- Finalaren egunean, Miribillako txarteldegian

Badator bertsozaleen festa handia, oihal erraldoiari azken korapiloa emateko ordua. Miribillan dugu hitzordua.



Finalurrekoetan da Bizkaiko Bertsolari Txapelketa.//BBE

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketarako izen-ematea

Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa 2015 urtea jokatu da. Txapelketa irailaren 20an hasi eta abenduaren 20an amaituko da.

Aurretik, 2015eko udaberrian, sailkapen-fasea egingo da. 2011ko Gipuzkoako Txapelketan finalurrekoetan abestu zutenak, zuzenean sartuko dira udazkenean egingo den Txapelketan,

baldin eta izena ematen badute. Gainontzekoek, udaberriko sailkapen-fasean lortu beharko dute hurrengo faserako txartela. Gipuzkoako Bertsolari Txapelketan parte hartu nahi dutenek, abenduaren 1etik abenduaren 30era bitartean eman behar dute izena, www.bertsozale.eus atarian horretarako bideratuko den fitxaren bidez.



Puntu jarrita

AINHOA AGIRREAZALDEGI

Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan euskara ikasleentzako bertso-eskolek ea lekurik baduten galdetu didazu, Ainhoa. Proiektu zoragarria da zuena, eta seguruen irakasleak beste hainbat hizkuntza- edo eta bertso-irakaslek baino sarriago eta sakonago so egingo du hizkuntzaren eta bertsoaren tripetara. Beraz, lehendabizi, irakasleok egongo ginateteke formakuntza jasotzeko irrikitan!

Eta ikaslerik? Izango genuke? Badugu? Seguru baietz, beti dago hizkuntzarekin jolas egitea maite duen jendea. Eta Alfredek ondo dioen gisan, ahoz ahoko propagandaren pareko doinurik ez dago.

Edonola ere, Nafarroatik EAera alde handia dago euskararen arloan eta, ondorioz, baita ikasleen helburuetan ere. Gurean, ikasle gehienek, hizkuntza bezainbeste dute burua jarrita hizkuntza-tituluetan. Hala eskatzen baitie testuinguruak. Eta titulua amets duten ikasleengandik deigarriena egiten zait, euskara, euskal kultura eta norbere hizkuntza-ohituretan gehiegi erreparatu gabe iritsi nahi dutela goi-mailetara. Eta irakasleok ere, nahi baino gehiagotan harrapatzen gaitu "azkar eta ondo ikasleak EGAn" kartzelako gaiak. Ikasle eta irakasle, guztiok kantatzen dugu gehiegitan euskararen txapelketen neurrira.

Horra hor bertsoaren eta euskararen parekotasun handi bat. Zer lirateke biak ala biak txapelketarik gabe? Txapelketak zer dira, egungo akuilu ala akuilu? Badakit bietatik dutela eta, beraz, horrexen inguruan galdetu nahi diot aspaldian akuilutik irtenda, baserriko zelaietan libre dabilen Aitzol Barandiarani.

Aitzol, berriz hogeit urte bazenitu, nolako bertso-eskola nahi zenuke zuretzat? Nolako bertso-ikaslea izan nahi zenuke? Zer lanketa egin, bertso-eskoletan eta zeure kabuz? Eman dizu horretarako pistarik Bi bala proiektuak? Txapelketak baino, bertso-plazak zutabe dituzten bertso-eskolek nolakoak izan behar dute? Etorkizuneko bertso-gintzan zertan eragin dezake bertso-eskolak ulertzeko eta antolatzeke erak?

Koplak

Bertso Egunerako sarrerak, urtarrilaren 7tik

Urtarrilaren 31n izango 2015eko Bertso Eguna, ohi bezala Donostian. Hurrengo zenbakian jasoko duzue ekitaldiaren berririk, baina jakin ezazue bazkideok sarrerak urtarrilaren 7tik erosteko aukera izango duzuela. Bazkide ez direnentzat, berriz, urtarrilaren 14tik aurrera egongo dira salgai.

Poto-Finixa



Ikusmin handia kanpoan dagoen horrekin

Bertsozale Elkartea

Bertsolaritzan lehia bizitzeko modu bereziaz liburua

Jexux Larrañaga Arriola antropologoak iazko ekainean bertsolaritzari buruzko doktore tesia aurkeztu zuen eta, orain, tesiaren mamia jasotzen duen liburua argitaratu du: *Jolas sakona* saiakera. Liburua ohiko liburudendetan edo Lankun on-line bidez eros daiteke; bazkideek 18 eurotan eta gainontzekoek 25 eurotan.



DURANGOKO AZOKAN GOIENKALE 69.ean aurkituko gaituzue!